
BIDEGOIAN
(Bidania - Goiatz)


Lizardi, Muñoa, Iriarte, Iturburu,..

Bidegoiango udala duela hamarkada gutxi batzuk independenteak ziren bi udalerrik osatzen dute: Bidania eta Goiatz. Ernio mazizoaren hegoaldeko hegalean dago, jatorri karstikoa duen sakonune zabal eta lau batean, Oria eta Urola artean. Populazioa baserritarra da gehienbat, batez ere Goiatz, 432 biztanlez osatua, eta udalerriak 13,7 km²ko azalera dauka.


Ernioko pistan, karaitza.


Karaitza eta pagadia.

Hiru dira Bidegoianen ezaugarri geologikoak definitzen dituzten egitura nagusiak: Ernioko sinklinala, iparraldean, hegoaldeko saihetsean Errezilgo failak mugatua -egitura horietatik bigarrena-, eta Beizako faila, Urkizuko antiklinalaren mendebaldeko muturrarekin elkartua. Material zaharrenak, Infraliasko kararri batzuk, Errezilgo failarekin elkartuta azaleratzen dira. Failaren iparraldean, serieak era konkordante batean jarraitzen du akzidente tektoniko honekiko paraleloak diren zerrendetan, Ernioren gailurreraino. Bertan kararri urgoniarrak eta flysch supraurgoniarra azaleratzen dira, era berean Ernioko sinklinalaren nukleo izanik. Failaren hegoaldean, litologia desberdinen antolamendua antzekoa da, nahiz eta Beizako failak eta Urkizuko antiklinalak zertxobait aldatuta. Hiriguneraino, material jurasiko eta kretazeo desberdinak elkarren segidan agertzen dira. Goiatz eta Bidaniako errepidearen gurutzegunearen hegoaldean, herri honetako hirigunean bertan, konplexu urgoniarra agertzen da, kalkarenita bioklastikoek gehienbat eta limolita-zerrenda txikiek adierazia.


Harkaiztegia Arratesaletxen.


Ernioko gailurrak, Txinkortatik ikusita.

Haranaren hondoa gehienbat jatorri misto alubiarra eta karstikoa duen metakin kuaternario batez estalita dago. Haranaren hondoaren forma laua da, kararrien eta kalkareniten disoluzio eta higaduraren emaitza gisa eta horren ondoriozko buztinezko material disolbaezinen metatzearena. Sakonunea iparraldetik hegoaldera luzatzen da, norabide bereko tokiko zartadura izan baita higaduraren eragileetako bat.


Mendiska leunak, Elola bailaran.


Goiatz.


Sorginzuloko sakonune karstikoa.

Bidania eta Goiatz kokatuta dauden arro itxian, bai eta garrantzi gutxiago duten beste sakonune karstiko batzuetan ere (Beraundegi, Sorgintxulo,...), urak infiltratu egiten dira, eta Salubieta eta Aldapagorrena iturbegietan agertzen dira berriro. Bi iturbegi horiek elkarrengandik gertu daude, Albizturgo uretan behera, Tolosako udalerrian. Iturbegietako emariak bolumen handia du, arroaren hedadurak eraginda, eta urteko batez bestekoa 336 l/seg.koa dela kalkulatzen da.


Bidaniako kokapen orokorra.


Aldapagorrenako iturbegia.


Bidaniako sakonune karstikoa.


Pagadia Urruztarango zuloan.


Alertze-landaketa, Ariztiolan.


Ernioko magaletako basoak.


Pagomotzak Berazeagako bidean.


Pagoak eta belardiak Leizetan.


Pinudiak Urkiolan.


Altzolako landaketak.

Bidegoianen ia hedadura guztia hartzen duten pagadietatik, udalerriaren erdiko guneak salbuetsiz horietan baso misto atlantiarra eta ariztia nagusitzen baitira, ia ez da ezer geratzen, aztarna batzuk izan ezik. Udalerri guztian zehar sakabanatuta dauden lursail batzuk egon arren, garrantzitsuenak udalerriaren iparraldean daude, Ernioren hegaletan, eta bertan pagadi eutrofoen hedadura handiak antzematen dira, era berean belardi menditarrez eta larre harritar kaltzikolez inguratuta, bai eta koniferoen sail landatuez ere.

Azken formazio honek hedadura handia hartzen du udalerriaren hegoaldean. Gainerako azalera gehienbat belardi eta labore atlantiarrek hartzen dute, harizti eta baso misto atlantiarren sail txiki batzuk tartean direla, edo haltzadi orban gutxi batzuk.


Goiatzeko kalea.


Bidaniako ertunea.


Bidania.


Goiatz.


Legarmendiaundi baserria.


Ipar-haritzaren landaketak.


Usarragazarra etxea.

Bidania eta Goiatz, Errezil, Aia eta Beizamarekin elkartu ziren Saiazko alkatetza eratzeko. 1563an, entitate honek Saiaz Elkartea izena hartu zuen. XVIII. mendean zehar, auzi eta liskar ugari izan ziren elkartea osatzen zutenen artean. Hala, 1792an mandatari bat izendatu zuten lur komunalak zedarriztatzeko. Bidanian, Batzar Probintzialak Usarraga etxean egiten ziren, baina banandu ondoren elizan izaten ziren. 1964an, Bidania eta Goiatz elkartu egin ziren, gaur egungo Bidegoian udalerria eratzeko.




Usarragako oroigarria.


Ariztiola.


Aldaolabekoa baserria.


Eliz bailarako goiko etxeak.


Bidaniako Aldaolako lurrak eta Murumendi.


Aldaolagoikoa bakartasunean.

Baserrialdeko udalerrien ezaugarri nagusiak Bidegoianen geratzen dira agerian: gizonezkoen kopuru handiagoa eta jaiotza-tasa baxua zahartutako populazioa izatearen kausa eta ondorioa dira, eta bertan piramidearen segmentu gazteenek portzentaje txiki bat adierazten dute.

Azken mende honetan, eboluzioari buruzko datuak kontuan hartzen baditugu, antzeko joera antzematen da Bidania eta Goiatz artean. Populazio horiek 60 hamarkadan elkartu zirenez, ordura arte ez dago bakoitzari dagokion datu independenterik. Zehazki, mendearen lehenengo herenean zehar, etenaldi bat izan zen biztanleen kopuruan, 1930 eta 1940 urte bitartean izandako hazkundeak (%20koa gutxi gorabehera) jarraituta. Ordutik aurrera, populazioan pixkanaka izandako beherapen geldiezina nabarmena izan da. Izan ere, orain, biztanleen kopurua ez da 1940ko zentsuaren heren batera iristen. Beheranzko joera hori arintzeko, arrazoi nagusia Tolosa edo Azpeitiako fabrika-inguruetarako baserritarren emigrazioa izanik, ez da nahikoa izan Bidegoianen enpresa batzuk instalatzea.


Santa Marina.

Udalerri honetan bi auzune nagusi daude, antzinako udalekin bat etorriz: Bidania eta Goiatz. Lehenengoa handiagoa da eta nolabaiteko hiri-egitura dauka.


Domingo mugarria.

Gainerakoan, udalerrian 80 bat baserri daude sakabanatuta zona egokienak kolonizatuz eta horietako batzuk altuera harrigarrietara iristen dira itsas mailaren gainetik, adibidez Beizaren (Berazeaga) kasuan. Bidaniak entitate txikietan banatzen ditu bere landa-eremuak: Elbarrena, Elizburu, Elola eta Erreka, Santa Marinan dituen jabetzez gain.


Goiatzeko plaza.

Goiatz gutxi gorabehera laukizuzena den plaza baten inguruan dago antolatuta, eta bertan dozena bat eraikin dago. Lurraren goragune batean dago, eta Azpeitiarako errepidea herri barrutik pasatzen da tangentzialki. Bidanian argiago ikusten da bidegurutze bat dela, bertan elkartzen baitira Tolosa-Azpeitia bidea eta mendiko bide bat, aurrekoa baino zaharragoa izan daitekeena, eta Oriatik Erniorantz igotzen zena, Santa Marina zeharkatuz. Eraikinak bide horien ertzeetan daude antolatuta, kale-bide bat eratuz.


Labakagoena baserria


Santa Marinako Larrañaga baserriak.


Gaztaindizabaleko borda.

Lehen sektorean diharduten biztanleen portzentajea handia da, bai eta eraikuntzan dihardutenena ere, industria eta zerbitzuetako lanpostuekin konparatuz. Nekazaritza eta abere-hazkuntza. Bidegoianen, nekazaritza eta abere-hazkuntzako jarduerak Erabilitako Nekazaritza Azalera bat zehaztu du, udal lurraldearen ia %70 hartuz. Gainera, behi-azienda handi bat du, ardi-azienda urria den bitartean. Udalerrian fabrika batzu daude, eta sortu dituzten lanpostuetako batzuk betetzeko aukera izan dute bertakoek.


Sagarrondoak Aldaolan.


Bengoetxea baserria.


Mikelandegiberri.

Baserrialdeko udalerri bat denez, biztanle gehienek -%95- euskaraz hitz egiten dute. %2k zailtasunak ditu hizkuntza hau hitz egiteko eta %3k ez daki euskaraz hitz egiten.

Santa Agedako ermita.

Zabaleko garbilekua.

Santa Marinako bidea elurpean.

Ondareari buruz Bidanian San Bartolome eliza (bertako harginen lan bikainaren erakusgarri); udaletxea, bigarren oina adreiluz egina duena, Gipuzkoan ohikoa ez den ezaugarria, alegia; hiriguneraino behealdeko jauretxeak, Mojaetxea eta Palazio Ana; Lizasoain edo Iriarte jauregia (XVII), landa-inguruan ohikoa den eraikin noblea aipa ditzazkegu. Goiatzen, berriz, Jasokundearen eliza, Aldekoetxea eta, batez ere, Apaizetxea edo Goiatzeko dorrea, estrategikoki kokatutako Erdi Aroko eraikina, horiek izanik interegarrienak. Bidegoiango haranean baserri-mota jakin nabarmentzen da, fatxada nagusian aurreratzen diren bi gorputz dituena, horren erakusgarri onena Bengoetxea izanik, Bidaniako erdigunetik gertu.

Seinale geodesikoa, Goiatzeko elizako atarian.

Goienetxeko armarria.

Goiatzeko bataiatze-harria.

Eliza eraikitzen. Atzean, lehengo eliza.

Uraitz, udaberrian eta neguan.

Aizpel edo Mako, udaberrian eta neguan.

PR-GI 82
IBILBIDEA

Bidania - Berazeaga - Bidania

Luzera: 7,5 km
Gainbehera: 270 m
Iraupena: 2 ordu

GR 34 eta GR 21
PR-GI 82

IBILALDIAREN ZEHAZTASUNAK

1 Plazatik abiatuz, eskola aldera igoko zara, errekaren bestaldera. Metro batzuk aurrerago etxe kozkor bat izango duzu, eta honen ezkerraldean dagoen legarrezko bidetik igoko zara. Ezkerrean, Otaegi baserria ikusiko duzu. Hau, atzean utzi bezain pronto, hasi berria duzun ibilbide honen bueltako bidea aurkituko duzu.

1 Bidetik igoko zara, aldapatik lasai egon, zabala eta egoera onean dago-eta. Ibilbidearen une batzutan hormigoia botata dago, bidea gehiegi urratu ez dadin. Bihurgunean, eskuinaldetik, bi bide ziztor ateratzen dira; baina, ez kasurik egin. Aldapa, zertxobait gogortu egingo da; erritmoa hartuz gero, ordea, erraz igoko duzu.

Bi aldetara belardiak daude, eta, bertan, azienda larrean ikustea batere ez harritu. Bidearen bukaeran ur-depositua ikusten da; bertatik, une batez, ikusmiran egotea merezi du **(A)**; aurrean, iparralderantz, Iturburuko mendatea eta Labarrietako muinoa daude -azken hau ezagutzen erraza da, tontorrean duen pagadiarengatik-; gainera, Ernio eta Aketegiren arteko mendialdea ere hor dago; era berean, hor ditugu Zelatun, Ernio eta Mako-ko muinoak, Ekialderantz, eta mendiska artetik, Aralarreko Mailoetako mendi batzu agertzen dira -Artubi, Oakorri, Aldaon,...-. Mendebalderantz, azkenik, Goiatz herria, Bidaniarekin batera 1964an Bidegoian herria eratu zuena, eta Illaun mendia, puntan gurutze txuria daukana, ikus daitezke.

2 Pago arbola dagoen lekuraino helduko zara eta, aurreraxeago, lizar batean dagoen burdinesia gainditu beharko duzu. Bidea, horma eta alertze-ilara batez babestua dago. Puntu honetan, ibilbidea laua izango duzu eta Musiondoko tontorrera inguratzen arituko zara. Basotik irten ondoren, beste burdinsare bat izango duzu. Hori da hori pago puska!; zertxobait hondatua dago, baina bere gerriak metro eta erdiko diametroa duela uste dut. Inguruan besteren bat badago, horrelako neurriak dituenik, ordea, ez. Begien bistan duzu Labardain baserria.

Labardain.

3 Baserri honetatik ezkerrera hartuko duzu. Labardainsaletxe baserriaren parean eskuinera hartu eta bertan dagoen burdinesia pasatuko duzu, gero, etxebizitza eta bordaren artetik joateko. Hementxe hasten da belardia zeharkatzen duen herribidea; honek, gero, Zelaietaren hego-hegaleko paraje basotsuraino jarraitzen du. Eskuinaldean, bidegurutze bat dago, Anduti baserrira eramango zintuzkeena. Zuk ezkerrekoari jarraituko diozu. Pago handi baten ondoan dagoen burdinesi bat gainditu beharko duzu.

Puntu honetan lurra nahiko biguna dago **(B)**; orbela ere ugaria da. Garai batean bildu egiten zuten, ganaduaren azpietako; gaur, ordea, ohiturak aldatu egin dira: erortzen den lekuan bertan uzten da, haizearen menpe. Egia esan, orbelak ez du kalterik egiten, lurra birsortzen eta humus geruza handitzen laguntzen duelako. Bidea errepidean amaitzen da. Metro batzuk beherago borda kozkor bat dago.

4 Berazeaga (Beiza) baserrira joaten den bidea igoko duzu. Baserri hau, Gipuzkoako lekurik altuenean omen dago, 719 metrotara -hori diote behintzat-. Ez duzu bertaraino joan beharrik; lehentxeago datoen zagor-bideari helduko diozu. Hurrengo mendiskan, Etzimendi gainako tontorra inguratzen duen bide zaharrari heldu diezaioekuzu, lizar-bide baten parean doana. Bide zahar hau pistaren paraleloa da. Biek, beste muino batean bukatzen dute; bertan, iturri bat topatuko duzu.

Zelaundiko iturria.

5 Iturria atzean utzi ondoren, adi egon!. Saihesbidea metro batzuetara dago, ezkerrean. Pista hau utzi eta erreka baterainо jaitsiko zara. Bideak, gero, urkiak eta haritz gazteak dauden basora eramango zaitu. Daramazun bidetik ateratzen diren bide ziztorrei ez kasurik egin. Argiune batean eraikuntza xume bat dago, bideak sakana egiten duela probetxatuz. Bideak zirkunferentzierdia marrazten du -hemendik, Aralarrek eta Aizkorrik duten itxura zoragarria da-. Bihurgune batean, goroldio dezente daukan horma dago. Puntu honetan ikusiko duzu bidea nola lurrean sartzen den, zanga baten itxura hartuko diozu; tapa-tapa segi eta muino batera helduko zara. Hemen, eskuinaldeko bigarren bidea hartuko duzu eta hurrengo bidegurutzea topatu arte jaitsiko zara.

6 Ubidearekin parez pare jaitsiz, ezkerrera hartuko duzu. Hurrengo bidegurutzean eskuinera hartu eta txabola handi batera helduko zara; hemen, lau bide aurkituko dituzu. Eskuinaldekoari helduz gero, Iturburu baserrira aterako zinateke, eta Gi-34arekin topatuko zinateke. Donostiatik Arantzazura doanarekin, alegia. Aurrealdean, bordaren eskuinaldera, bide zaharra ikusiko duzu. Alanbrezko hesia igaro, eta bide honetatik jarrai ezazu Betelugoena baserrira iritsi arte. Bidearen zati honetan Balantzategi baserria ikusiko duzu ezkerretara.

7 Porlanezko pistatik Betelu baserrira iritsiko zara. Ernio errekara **(C)** iristean, zubia zeharkatu eta mendiaren magaleraino helduko zara. Ubide honek, metro batzuk gorago, Ibiri izena du; gero, Iturritxikietarekin bat egitean, biek beraien toponimoa galtzen dute. Hau maiz gertatzen da; hau da, erreken nahiz erreka ziztorren izenak aldatu egiten dira. Emaria handiagoa bada, hidronimoa mantendu egiten da, arduradunak horrela erabakiz gero.

Ibiria harana.

8 Hemendik, eta Iturburutik datorren errepidearekin parez pare, Bidegoian herrira iritsiko zara, Eztiola baserritik zehar; gero, Otaegitik barrena, herriguneko plaza ailegatzeko.

ERNIOZALEAK KULTUR ELKARTEA